

Informatika eta telekomunikazioak

Gobernantza Publiko
eta Autogobernu Saila

AI Basque sortu da, Gaia Klusterraren eta EHUko Hitz Taldearen eskutik, Inteligentzia Artifiziala sustatzeko Euskadin

Argitalpen-data: 2020/07/20

AI Basqueren ikuspegia da Adimen Artifizialaren (AA) arloan Euskadi nazioarteko erreferente bihurtzea, industrian, zerbitzu-sektorean eta administrazio publikoan AAren aplikazioa bultzatuz, eta eragile guztiak eta herritarrak AAren abantailez eta datuen kudeaketa egokiaz kontzientziatuz.

Bere helburua da esparru ekonomiko eta sozial guztietan adimen artifiziala sustatzea, beste sektore batzuekiko lankidetzak sustatuz eta produktu/zerbitzu, teknologia eta merkatu berrien garapena bultzatuz.

Besteak beste, ondorengo helburu ditu:

- Bere esparruan dituen AA-industrien eta sektore osoaren sustapen teknikoak, komertzialak eta ekonomikoak bultzatzea, horrela eskualdearen garapena eta aurrerapenari lagunduz.
- Bazkideentzat interesgarriak diren alderdiak barreiatzea, teknologia, merkataritza eta enpresaren arloetan, erakunde nazionalen zein nazioartekoaren aurrean ordezkatzeko, eta horien interes profesionalak defendatzeko.
- Lankidetzak proaktiboak garatzea eraldaketa digitalaren eta ekonomia berriaren garapenean: erakundeak, lurraldea eta gizartea.

AI Basque ekimena gaur egun ICTA sektoreko 21 enpresak, 3 zentro teknologikok, Gaia klusterrak eta EHUko Hitz ikerketa-taldeak osatzen dute.

[GAI Ak argitaratutako albistearen esteka. \(https://www.gaia.es/blog/noticias-gaia-1/post/nace-ai-basque-de-la-mano-del-cluster-gaia-y-del-grupo-hitz-de-la-upv-ehu-para-impulsar-la-inteligencia-artificial-en-euskadi-88\)](https://www.gaia.es/blog/noticias-gaia-1/post/nace-ai-basque-de-la-mano-del-cluster-gaia-y-del-grupo-hitz-de-la-upv-ehu-para-impulsar-la-inteligencia-artificial-en-euskadi-88)

[Eusko Jaurlaritzaren Web Zerbitzuak \(/eusko-jaurjaritza/web-zerbitzua/hasiera/\)](#) garatutako eta kudeatutako webgunea

Euskadi, bien común

